



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

MILIOI BAT BARIK TXARTEL ZIRKULAZIOAN

Gaur egun Bizkaian garraio publikoan egiten diren bidaien % 69,7 BGPren garraio txartelen bidez ordaintzen da

Gaur, 2014ko martxoaren 28an, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) milioi batgarren Barik txartela entregatu du Termibus-San Mamesko BGPren bezeroei arreta eskaintzeko bulegoan.

Banda magnetikodun txartelak (Creditrans, Gizatrans) ordeztuko 2011ko irailean kontakturik gabeko Barik txartela ezartzen hasi zenetik (fase pilotua), bide labur baina bizia egin da milioi bat Barik txartel zirkulazioan egotea lortu arte.

Gaur egun, Bizkaian garraio publikoan egiten diren bidaien % 69,7 BGPko garraio txartel itunduen bitartez ordaintzen da. Gaur arte emandako milioi bat txarteletik % 77 kolore zuriko Barik kide txartelak dira, eta % 23, ostera, Barik giza, kolore gorridunak. Barik kide txartelen barruan, % 82 anonimoak dira, eta % 18 pertsonalizatuak, argazkiarekin; Barik giza txartel guztiak ere argazkiarekin pertsonalizatutakoak dira.

Barik txartela orokorrean eta modu masiboan ezarri zenetik, 2012ko urrian, 9.700.000 erreforma baino gehiago egin dira, 79 milioi euro baino gehiagotan baloratutakoak. Barik kide txarteletan batez besteko erreforma 8,13 eurokoa da, eta Barik giza txarteletan, ostera, 7,45 eurokoa. Erreformen balioaren % 78 garraio operadoreen bitartez ordaindu da, eta, are garrantzitsuagoa dena, Barik txartela 100 milioi bidaiatan baino gehiagotan erabili da.

Horrez gain, banda magnetikodun txartel zaharretatik (Creditrans eta Gizatrans) Barik txartelera saldoa eramateko 442.673 eragiketa egin dira, 500.000 euro baino gehiagoko zenbatekoan.

BGPk oso modu positiboan baloratu du txartel bakarra horren azkar ezarri izana, eta Barik txartelak gizaratean lortu duen onarpena arrakasta kolektibotzat jo du, Bizkaia osoan garraioa ordaintzeko eta erabilzaileek deskontu handiak jaso ahal izateko tresna erabilgarri gisa.